

Jutta Koether. Black Place



Polsprung. Jutta Koether, 2002. Oihal-gaineko olioia. Galerie Buchholz-en adeitazunez.

A2 aretoa, 2022ko urriaren 28tik 2023ko apirilaren 16ra arte

Komisarioak: Beatriz Herráez, Catalina Lozano

Argitalpena: Beatriz Herráez eta Catalina Lozanoren testuak eta Peio Aguirre eta Jutta Koether-en arteko elkarrizketa

Solasaldia Jutta Koetherekin: ostirala, urriak 28, 18etan, Artium Museoko Auditorioan

Informazio gehiago hemen: www.artium.eus

ARTIUM MUSEOAK JUTTA KOETHER ARTISTAREN *BLACK PLACE* ERAKUSKETA AURKEZTU DU

Hiru hamarkada luzetan egindako obrak dira, 80ko hamarkadaren erditik gaur egunera arte

Gainera, artista alemanak propio proiektu honetarako egin duen lan bat ere badago *Black Placen*

Artista aleman famatu honek Espainian egin duen lehenengo erakusketa da

Koetherren lana pinturan oinarritzen da: arte-praktika feministan bitarteko hori erabiltzea aldarrikatzen du

Artium Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak *Jutta Koether. Black Place* erakusketa aurkeztu du (A2 aretoa, 2023ko apirilaren 16ra arte). Erakusketa honetan bildutako lanak hiru hamarkadatan eginak dira, 1987an hasi eta gaur egun arte alegia, eta, gainera, Artium Museoko proiektu honetarako propio egindako obra bat ere badago. Laurogeiko hamarkadaren hasieratik, Koetherren ibilbidea pinturan oinarritu da, izan ere, artistaren arabera, bitarteko hori aproposa da arte-praktika feministarako; bestalde, idazketa, performancea eta musika ere landu ditu. Erakusketaren harira, Artium Museoak argitalpen bat osatuko du: erakusketaren komisario Beatriz Herráez eta Catalina Lozanoren testuak plazaratuko dituzte, eta Jutta Koether beraren eta Peio Aguirre komisario independente eta idazlearen arteko elkarrizketa bat ere bai.

Jutta Koether (Kolonía, 1958) artista, idazle eta musikariari eskainitako erakusketa honetan laurogeiko hamarkadan hasi eta gaur egunera arte egindako obrak biltzen dira. Koetherrek, bere lanetan, berriro formulatzen ditu Artearen Historiako kode asko, eta artistaren ikuspegi feministak gainditu egiten ditu pinturaren mugak eta margolaritzaren inguruko aitortza- zein zilegiztatze-prozesuenak. Artistak, bere ekoizpenaren bitartez, ezarritako kontakizunak interpelatzen ditu, aipua, jabetzeak eta «gaizki-ulertuen potentziala» baliatuta.

Black Place da Jutta Koetherrek 1987az geroztik Espainian egin duen lehendabiziko erakusketa; urte horretan, La Máquina Española galeriak antolatuta, bere lanak erakutsi zituen Rosemarie Trockel eta Bettina Semmer artistekin batera, Sevillan. Urte berean, New Yorkera joan zen estreinakoz, eta han bizi da 1991tik; dena den, Berlinen eta Hanburgon ere egoten da, irakasle jarduten baita Hochschule für Bildende Künste (HFBK) eskolan.

Erakusketaren izenburuak zerikusia du Georgia O'Keefe margolari estatubatuarrek batik batik 1940ko hamarkadan egindako paisaia batzuekin; Aztec inguruan egin zituen, Mexiko Berrian, eta eremu hari Black Place deitu zion [leku beltza]: mendialde ilun bat desertu amerikarrean.

Black Place (2022) erakusketako lehen piezak –artistak propio sortu du proiektu honetarako– Koetherren obrako presentzia errepikakor bat iragartzen du: (balizko) emakume baten buruaren silueta. Pasabide luze baten amaieran kokatuta dago marrazkia, eta metalezko trazatu bat da pareta beltzaren gainean. Antolaketa horrek behartuta, bisitariak huts luze bat zeharkatu behar dute

obrara iristeko, eta Koetherren lanaren ezaugarritzat jo daiteke hori, izan ere, espazioa elementu performatibo bat da artistaren obran eta bere denbora sortzeko baliatzen dituen sareetan.

Black Placen bildutako lanak era askotako formatutan eta materialekin eginda daude: esate batera, mihise handiak daude; halakoetan, Boticelli, Rubens eta enparauen obrez jabetzen da Koether, eta ikuspegi feminista batetik galdekatzen ditu; bestalde, formatu txiki eta ertaineko obrak ere badaude, hainbat euskarritan eginak, eta Koetherrek halakoetan bestelako material batzuk baliatzen ditu, pintura tradizionalaren mugak gaindituz, DIY korrontearen eta punkaren eraginpean. Nahiz eta artearen historia Koetherren praktikako subjektu bat izan den beti, jabetze-estrategiak aldatu egin dira denborarekin, eta bere lanetan testuak sartzeko bideak ere moldatu ditu. Bere lehen obretatik argi ikusten da arreta eskaini nahi diela herri kulturako adierazpenei, beste auzi historiko batzuei eta pintura eraikitzeke logikari berari.

Jutta Koether

Laurogeiko hamarkadaren hasieratik, Jutta Koetherren arte-praktika pinturan oinarritu da, eta idazketak, performanceak eta musikak zeharkatu dute orobat; praktika horiei esker, arte-historiografiaren diziplinari kontra egin dio, eta bere genealogia propioak bilatu. Koetherren lana gordeka eta manugaitz hurbiltzen da pinturaren historiara, bitarteko hori arte-praktika feminista gauzatzeko egokia dela aldarrikatuz, eta modu kritikoan jabetzen da kanonaren haustura-uneak markatu dituzten margolaritza-tradizioez.

Koetherrek artea eta filosofia ikasi zuen Koloniako Unibertsitatean, eta Ikasketa Independenteen Programa ere egin zuen Whitney Museum of American Art museoan, New Yorken, 80ko hamarkadaren hasieran. Erakusketa monografikoak antolatu dizkiote hainbat museo eta erakundetan: Museum Brandhorst, Munich, Mudam Luxembourg, PRAXES Center for Contemporary Art, Berlin, Moderna Museet, Stockholm, Van Abbemuseum, Eindhoven; Kunsthalle Bern, Vienako Arte Ederren Akademia eta Kölnischer Kunstverein, Kolonia.

Artea sortzeaz gainera, Koetherrek testuak idatzi ditu hainbat arte- eta musika-argitalpenetan, hala nola Spex, Eau de Cologne, Artforum, Texte zur Kunst eta Flash Art. Liburuak argitaratu ditu, besteak beste: *f.* (1987). Gainera, Koether hainbat proiektutan jardun da Reena Spaulings kolektiboarekin, eta musika-performanceetan ere bai Rita Ackerman, Tony Conrad, Kim Gordon, John Miller, Steven Parrino eta Tom Verlaine musikariekin, besteak beste. 2010. urtetik, Pintura eta Marrazketa irakasten ditu Arte Ederren Unibertsitatean, Hanburgon.

Artium Museoko erakusketak

Jutta Koether. *Black Place*. 2022ko urriaren 28tik 2023ko apirilaren 16ra

Iván Zulueta *aren asaldura*. 2023ko martxoaren 5era arte

Néstor Sanmiguel Diest. *La peripecia del autómeta*. 2022ko azaroaren 1era arte

Zeru bat, hamaika bide. *Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian*. Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma. 2023ko urtarrilaren 8ra arte

Bilduma, ikusgai. Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma. 2022ko abenduaren 31ra arte

***Etorkizuna proiektatuz (Magnet-Erakarri proiektua)*.** 2023ko urtarrilaren 9ra